

XagunArtea

2006ko apirilaren 18a

Xagun aldizkaria

4. alea

Goierriko eskola txikien jaia maiatzaren 7an ospatuko da



Ikasturte berrian ekintza ugari

2005-06 ikasturtea martxan da irailetik. Ikasturte honetan Guraso-elkarteak 10 urte bete ditu, 1995eko azaroan legezatu baitzuen Eusko Jaurlaritzak. Hamar urte elkarlanean! Hori ospatzeko zerbait antolatzeko asmoa dugu, hurrengo alean izango duzue horren berri. Aurten eskolan 11 haur dabilta, haurreskolan bat eta jangela-zerbitzua 9 haurrek erabiltzen dute. Gurasoek hilero izaten dugu bilera, hileko azken ostiralean arratsaldeko 5:30etan Maixunen.

Irailetik abendura bitartean egingakoak ondorengoak izan dira:

Irailan Maixuneko lehen solairua pintatu genuen haur eta gurasoek elkarlanean eta oso gustura gelditu gara egingako lanarekin. Ez itxoin inaugurazio-egunera arte ikustera etortzeko! Jangela eta haur eta gurasoen txokoa bertan kokatu ditugu.

Urrian gaztainak biltzera joan ginen eta ondoren plazan, taloak egin eta dastatzeko aukera izan genuen zeraingar guztiek. Eskerrak eman nahi dizkiegu Mendarteko Joxepa eta Telleriko Ineseri talogintza erakustea-



Gogor aritu ziren umeak ere pintaketa lanetan. ARANTXA R. LARRINAGA

gatik. Urtero bezala gaztainak ez ziren faltatu.

Azaroan Tolosako Nazioarteko txontxongilo jaialdira joan ginen. **Abenduaren** 24an, haur, guraso eta irakasleak etxez etxe ibili ginen kantuan.

Datozen hilabeteetan hauek dira egitea pentsatu ditugunak:

***Urtarrilaren** 28an, herriko txokoren

bat ezagutzeko irteera egingo dugu.

***Otsailaren** 26an, Donostiako Itzoz-Jauregira joango gara patinatzerara eta ondoren sagardotegi batera bazkaltzera.

***Apirilaren** 2an, mendi-irteera egingo dugu.(oraindik tokia zehazteke)

Gurekin etorri nahi duzuen guztiak gonbidatuta zaudete, jarri gurekin harremanetan!

Liztormendi

Tute eta mus txapelketak

Urte Berri On lehenengo, Liztormendi elkartearen izenean. Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere Liztormendi elkarteak tute eta mus txapelketak antolatu ditu. Lehenengo tute txapelketa jokatu da ilbeltzaren 28an eta mus txapelketa berriz, otsailaren 11n jokatu da. Irabazleentzat txapela eta garaikurra izango dira eta bigarren geratzen direnentzat xanpain botila eta gazta eder bana. Final erdietara iristen diren guztientzat, afora ear bat izango da; menua jakina dugularik, arkumea lepo. Afal ondorenean ez da hordago eta desfiorik paltako, eta ordu txikiak arte luzatu-



lazgo mus txapelketako finalistak. MUÑOZA

ko da karta jokoa.

OHARRA: Abenduaren 28an hartutako erabakiaren ondorioz, mus eta tute txapelketa jokatzen ari diren bitartean ez da erretzerik izango.

Kultur elkarteak

Santa Ageda bezpera

Orain gutxi etxez etxe kantuan ibili ginen Gabonak zirela-eta. Berriz ere horretaraxe goaz Euskal Herrriko eguna omen den horretan. Uharka abesbatzak gidatuta, otsailaren 4an, larunbata, etxez etxe ibiliko gara kantuan kopla zaharrak kantatuz eta usadioari eutsi nahian. Urteroko moduan, aurten biltzen den dirua ere beharrean dauden herrietara bidaliko dugu. Aurtengoan Afrikako Akkonibe herrikkako proiektura bidaliko dugu zeraingar denok emandako laguntza. Santa Ageda kantuan irtetzeko entsaioak urtarrilaren 20an eta otsailaren 2an iluntzeko 8:30tan egingo dira. Animatu eta etorri zeu ere kantura!

Udala

Sahararako karabana

Saharar herriari lagundu nahian Zeraingo Udaleko Ongizate sailak elikagai eta lehen produktuen bilketa kanpaina antolatu du. Sahararen aldeko karabana aspaldidanik antolatzen da Euskal Herrian baina Zerainen bigarren urtea da bilketa hau egiten dena. Iaz herritarrek borondate onez hartu zuten parte eta aurten ere hala izango delakoan gaude, Zeraingo herritarrek betidanik erakutsi izan dute beren eskuza-baltasuna beharrean dagoenari laguntzerakoan eta Saharar herriak gure laguntza behar du oraingoan.

Kanpaina honetan hiru produktu konkretu ari gara biltzen: **ATUN LATAK, AZUKREA** eta **KONPRE-SAK**; produktu hauetatik nahi adina eman ahalko dira horretarako prestatutako lekuetan, hau da, **HERRI ESKOLA, MANDIOA DENDA** eta **UDALETXEAN**.

Kanpaina abenduaren 29an hasi zen eta urtarrilaren 18ra, asteazkene-ra, arte iraungo du. Beraz oraindik egun pare bat gelditzen denez Udalak herritar denak gonbidatzen zaituzte bakoitzak ahal duen neurrian kanpaina parte hartzera; denon laguntza premiazkoa baita.

2005eko errolda

2005 urte hasieran 247 biztanle zuden Zerainen erroldatuta. Urtean zehar egon diren gora-beheren ondoren urte bukaeran 253 biztanle daude.

Urtean zehar 12 baja izan dira; hauetatik 4 heriotzak. Altak 18 izan dira; hauetatik 2 jaiotzak. Beraz urte hasieratik bukaerara 6 biztanle gehiago ditu herriak.



Udal tasak

Arauzko jendaurreko informazio epea iragan denez batere erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe, behin betikotzak jo dira 2005eko urriaren 27an hartutako hasierako erabakiak, tasa, kuota eta ordenantzak finkatu eta aldatzekoak. 2006ko urtarrilaren 1etik aplikatu dira.

Tasa, kuota eta tarifa hauek IPCaren arabera igoera izango dute, zabor bilketak izan ezik, honek

% 6ko igoera izango du, hau da Sasietak egiten duen igoera bera.

Partzuergoak su-egurra salgai

Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoak su-egur lotiak salgai izango ditu aurki. Eroslearen etxean jarrita, egur tona bakoitza 30,05€ kosatoko da, baina gutxienez erosi beharreko lotea 14 tonakoa izango da, hau da, kamio-kada bat. Zerainek Partzuergoan parte duenez herritarrok erosi ditzakegu egur lote horiek nahi izanez gero. Interesatuta daudenek udaletxean izena eman beharko dute urtarrilaren 31 baino lehen. Eskerak eta sortzen diren egur lotiak ikusitakoan, banaketa egingo da. Eta beharrezkoa izango balitz zozketa egingo litzateke izena emandakoen artean.

Erretzeari uzteko ikastaroa

Minbiziaren aurkako elkarteak ikastaro bat proposatu du erretzeari uzteko. Otsailaren erdian hasiko litzateke eta 8 astez, astean sesio bat emango litzateke. Taldearen kostua 520€koa izango litzateke eta gutxienez 8 eta gehienez 12 lagun egon beharko litzateke taldean.

Informazio gehiago nahi izanez gero deitu lasai Udaletxera 943801724 telefono zenbakira.

Kristau elkarte

San Blas en meza

Datorren otsailaren 3a, osteguna, San Blas eguna da eta urtero bezala meza ospatuko da San Blas ermitan. Janariaren eta kandelen bedeinkapena egingo da. Ordua: iluntzeko 18:30ak. Ondoren, Kultur Etxearen eskutik, merienda ederra egongo da Liztormendi elkartearen

KZ gunea

KZ gunearen ordutegia honakoa da: Asteleheneetik ostiralera: **10:30-13:30** eta **15:30-18:30** (giltza Mandion dago). Otsailean tutorea bi egunetan egongo da eta bi mintegi eskainiko ditu: otsailaren 9an "Itsasoan murgildu" eta otsailaren 23an, "Jarraitu gustuko kirola interneten". Ordua: tutorea, **9:30-10**; mintegiak: **10-11**



Kupelak irekita daude Oatzan urtarrilaren 13az geroztik. Aurten Xapre trikitilariak ireki du txotxa lagun arteko giro ederrean. ION MUÑOZA.

Babesetik

ABENDUA	astelehena	asteartea	asteazken	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
	GUZTIRA: 174,25 litro ALTUENA: 12 °C BAXUENA: -5 °C			1	2	3	4
Euria (l/dm)				17	0	3	18
C° altuena				8	12	12	12
C° baxuena				3	6	2,5	6
	5	6	7	8	9	10	11
Euria (l/dm)	30	23	0	15	0	0	0
C° altuena	8,5	8	8	11	10	8	7
C° baxuena	6	4	2	3	7	0	0
	12	13	14	15	16	17	18
Euria (l/dm)	0	13	3,25	0	0	13	1
C° altuena	8	6	4,5	4,5	5	8	9
C° baxuena	5	4	3	2,5	3	4	4
	19	20	21	22	23	24	25
Euria (l/dm)	0	0	0	0	0	0	0
C° altuena	4	4	6	5	4	4	5,5
C° baxuena	-4	-5	-4	-5	-5	-5	-5
	26	27	28	29	30	31	
Euria (l/dm)	0	0	6 (elurra)	12 (elurra)	42	8	
C° altuena	7	4	3	3	9	12	
C° baxuena	-2	1	-3	0	3	6	

Galtzen ari diren hitzak

Errezuma

Hau ere galduz doan hitza dugu, itxuraz. Galdetu gazte-
ei, eta egin proba. Zeraindar askotxok daki ordea, oraindik ere, *errezuma* horrek zer esan nahi duen. Otatzako Elenak berak azaldu zidan orain bi hilabete, beste inork baino lehenago, bere etxeok eta herriko hainbatek zertarako erabiltzen duen hitz hori: baserrietako ganbaran, tei-latuean eta paretaren kontra, gauzak izkutuan gordetzeko erabili ohi den txokoa edo zuloa. Gerra-garaian ba omen zen, adibidez, etxeok esku-peta bertan gordeta eduki zuenik. Oraindik askoren ezpainenetan dabilen hitza omen da. Larraondoko Juliri eta Aizperrotako Joxeri behin baino gehiagotan entzuna omen die, esate baterako.

Berehala galdetu diot nik, eguerdian, artikulutxoan idazten hasi aurretik: *errezuma* edo *erresuma*? Nola esaten duzue? Elenaren erantzuna: "dudarik gabe, *errezuma*; horrela entzun ohi det nik". Zeraindarrak fidagarriak dira, gutxi bezain fidagarri, s eta z bereizteko orduan. Behin baino gehiagotan konprobatua daukat hori.

Beraz bazkaldu, siestatxoa egin eta etxeok hiztegiatar jo dut. Muga batekin, halere: Zerainen ez daukat OEH eskura. Hau da, *Orotariko Euskal Hiztegiak* zer dioen begiratzerik ez daukat oraingo honetan). Dagoenari helduko diogu, beraz. Hots, Azkue hiztegiari. Azkuek dakarrena ez da *errezuma*, *erresuma* bai-zik. Hori ez da harritzekoa: esangura horretako aipamen gehienak Bizkaian edo Bizkai-hizkerako esparruan jasoak ditu (Oñati barne), eta badakigu bizkaierak s eta z arteko bereizkuntza ezabatzeko joera duela. Ordiziko aipamen bat ere egiten du hiztegiak, halere, eta horrek duda handixeagoa eragin dit.

Utz dezagun ordea letra edo hots kontua alde batera, eta gatozen mamira. Zer esan nahi du *errezumak* edo *erresumak*, Azkueren esanean? Hiru esanahi ditu: bata iparraldekoa, eta bi hegoaldekoak (batez ere bizkaieraren esparrukoak). Iparraldekoen ahoan eta luman, *erresuma* horrek *erreinua* esan nahi du. Erreinua edo (Villasanteren hitzetan) nazioa: *Frantziako erresuma*, *zeruko erresuma* eta antzekoak ezagunak dira haien artean. Ikus, adibidez, Axularren *Gero*. Hegoaldean, berriz,

bi esangura hauek ditu: a) "huecos en la techumbre entre vigas", eta b) "puntal de las bandas del tejado".

Esanahi bata zein bestea hartu, berdin du: biak ezkontzen dira ondo samar Zerainen esaten denarekin. S eta z-rena alde batera utzita, *hueco* edo *puntal* inguru hori ez da leku aldrebasa gauzak gordetzeko.

Nondik ote dator hitza? Horri ezin diot nik erantzun artezik eman. Gehienik ere, lanerako hipotesi gisa bi lerro hauetan barrena abiatuko nintzateke: batetik, *errezola*, *errezusta* eta antzeko deitura batzuen ildotik joko nuke (*errezola* ageri den esparruan badirudi ez dela *erretola* moduko deiturarik, eta horrek esplizazio sozio-historiko jakina izan dezake); bestetik, gaztelaniazko *rezumar* formara joko nuke, katalanezko *sumar*, *xumar* dialektala ere tartean sartuz: halako lekuetan ez da itokinik fala izaten, eta *rezumar salitre* edo *gotear* elkarrekin loturik daude hainbatean. Bide hori zuzena balitz, griego zahar arruntera iritsiko ginateteke.

Utz ditzagun etimologia kontuak bere horretan. Gaurkoan hala behar-ko du. Hurrengoan gehiago, gusto baduzue.

Mikel Zalbide